

# BATERALABS-EN UROLA GARAICO ESKUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

**Data:** 2026ko maiatzaren 12a (asteartea)

**Lekua:** Antioko interpertazio zentroa, Zumarraga, Gipuzkoa

## **1. Ekitaldiaren helburua**

Ekitaldiaren helburua **Urola Garaian** herritarren laborategia hasia izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Urola Garaiko eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariek zuzenduta dago: hainbat udalerrri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

## **2. Ekitaldiaren garapena**

### **2.1 Blokeen garapena**

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

#### **1. Ongi etorri instituzionala (5 min)**

- **Arduradunak:** Mikel Serrano, Zumarragako alkatea eta José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasueko Diputatua.
- **Deskribapena:** Zumarragako Udalak, Naturklimak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongietorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuten, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Urola Garaiko eskualdean izan dezakeen eragina ere. Hurrekin batera, eskualde bakoitzera egokitutako politiken beharra azpimarratu zuten, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

#### **2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)**

- **Arduradunak:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria eta Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa propioak Urola Garaia duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

### 3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)

- **Arduradunak:** Xabi Murua eta Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduradunak.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkaritza publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkaritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

### 4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post-it -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Urola Garaiko jasangarritasunarekin lotutako lehentasunezko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasunari, hiri-beroari, espazio naturalen kudeaketari, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, post-it en bitartez erronak gaika landu ziren, tokiko erronkak identifikatu eta kokatuz. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

#### 1. lan-mahaia / Bozeramailea: Arantxa Fernandez

Taldeak modu sintetikoan adierazi zituen eskualdeko erronka nagusiak. Lehenik eta behin, egoitza-trantsizio energetikoari dagokionez, aipatu zuten erronka eskualde mailakoa dela eta beharrezkoa litzatekeela ikerketa sakona egitea honi aterabidea emateko. Horrekin batera, hiri-beroaren erronkarekin, adierazi zuten Zumarragak itzalgune gutxi dituela eta gehiago jartzea komeniko lukeela. Zumarragarekin jarraituz, nabarmendu zuten baratzen

zonalderako, Urtubirako, oinezko sarbidea hobetzearen beharra. Gainera, eskualde mailan, basoen garbiketari buruzko kezka adierazi zuten.

Azkenik, mugikortasunaren gaiari heldu zioten, eta ardura erakutsi zuten landa eremuko mugikortasun ereduekin. Bereziki Legazpiko egoeran sakondu zuten, baina azpimarratuz eskualde osoko arazoa dela. Azaldu zuten biztanleria oso sakabanatua dagoela, eta orokorrean jende nagusia bizi dela bertan, mugikortasuna arazoak dituztenak, eta ondorioz talde zaugarrian bilakatzen direla. Horrekin batera, azaldu zuten pertsona hauek zaintzen dituzten pertsonen ehuneko handi bat emakumeak direla eta bereziki emakume migratuak. Proposatu zuten landa eremuan mugitzen diren pertsonen zaugarritasun ikerketa egitea. Eta esan zuten, adibidez, bizikleta elektrikoak konponbide garrantzitsua izan ditezkeela. Mugikortasunarekin bukatzeko, aipatu zuten Urretxu inguruko trafikoa dakarren kutsadura eta bidegorri sarearen hobekuntzaren beharra, konektatu ahal izateko landa eremua herrien erdialdearekin.

### **Erronken laburpena gaika:**

Mugikortasuna:

- Urtubiko baratze-eremuko oinezko sarbidea hobetu.
- Landa eremuko mugikortasuna ikertu eta bertan bizi direnen pertsonen zaugarritasunaren inguruko ikerketa egin.
- Bizikleta elektrikoak jartzea.
- Urretxu inguruk otrasafikoak kutsadura sortzen du.
- Bidegorri sarea hobetu, landa eremuak eta herriguneak konektatzeko.

Energia:


- Egoitza-trantsizio energetikoa eskualde mailako erronka.

Hiri berroneratzea:

- Ez daude itzalgunerik Zumarragan.
- Itzalgune gehiago sortu behar dira.

Lehen sektorea:

- Basoen garbiketaren inguruko kezka.



## 2. lan-mahaia / Bozeramailea: Jon Mikel Intsausti

Mahai honek ere mugikortasuna identifikatu zuen eskualdeko erronka nagusietako bat bezala. Aipatu zuten eskualdeko ekonomia gainbeheran egotearen ondorioz, jende asko haien herrietatik kanpo lan egiten duela, eta horrek eguneroko joan-etorriak eragiten zituela, gehienak kotxez egiten direnak. Hori dela eta esan zuten enpresek mugikortasun planak osatu beharko lituzketela, langileen mugikortasuna errazte aldea. Horrekin batera, tren eta autobus zerbitzuen maiztasunaren handitzea beharrezkoa dela azpimarratu zuten, gaur egungo zerbitzua ez bai da nahikoa.

Horrekin batera, eskualdeko orografiak dakartzan zailtasunak seinalatu zituen. Adibidez, aurretik aipatutako mugikortasunari dagokionez, baina baita ere ibaien eta basoen kudeaketari dagokionez. Aipatu zuten uholdeak bereziki eragiten duten zonaldeen gaineko kontrol gehiago beharrezkoa dela. Gainera, berdeguneen falta ere mahaigaineratu zuten, eta kaleetan zuhaitz gehiago jartzea proposatu zuten.

Bukatzeko, energiaren ikuspegitik, komunitate energetikoak eta antzekoak sustatzea proposatu zuten. Honen arrazoia izanik, nabaritu dutela berogailuen kontsumo beldurgarria dagoela eskualdean, gehien bat eraikinetan isolamendu falta antzematen dutelako.

### Erronken laburpena gaika:

Mugikortasuna:

- Eguneroko joan-etorriak lanegatik kotxez
- Beharrezkoa enpresek mugikortasun planak garatzea
- Tren eta autobus maiztasunak handitu

Energia:

- Komunitate energetikoak sustatu
- Berogailu kontsumo altua
- Eraikinetan isolamendu falta

Hiri berroneratzea:


- Berdeguneak falta dira.
- Berdegune gehiago sortu behar dira.

Uholdeak:

- Uholde-arriskuan dauden zonaldeen gaineko kontrol handiagoa
- Ibaiaen kudeaketa eta garbiketa hobetu.

Lehen sektorea:

- Basoen kudeaketa hobetu.



### **3. lan-mahaia / Bozeramailea: Mikel Escudero**

Talde honek amankomunean jarri ditu egoitza-trantsizio energetikoa eta mugikortasunaren gaia. Aipatu dute ez dutela denborarik izan gainerako gaien inguruan eztabaidatzeko baina idatzitako post-itekin beteko da atal hau.

Plenarioran aipatutakoari dagokionez, lehendabizi aipatu zuten burujabetza energetikoaren inguruan informazio gehiago ematea indartu behar dela. Eta azpimarratu zuten oraindik energiaren lorpenetara iristen.

Mugikortasunarekin jarraituz, kontatu zuten nola kirol erakundeetan, adibidez, autobus zerbitzua partekatzeko aukera dagoen eta begi onez ikusten den, baina uste dute gehiagotu daitekeela zerbitzua. Batetik, klubak gain gelditzen delako, eta behar bada babes instituzionala izan zezakeen. Bestetik, adin txikikoek autobusa erabiltzen ba dute ere, adinean gora egin ahala kotxea erabiltzen hasten direlako. Bidegorrien harira, gehitu zuten beharrezkoa dela Legazpi inguruko bidegorri sarea osatzea. Aitortu zuten orografiak zailtzen duela honetan laguntzen, baina ahala ere hobekuntzarako marjina dagoela. Bozeramaileak bidegorrien egoera Legazpiaren peatonalizazioarekin konparatu zuen. Kontatu zuen nola Legazpi peatonalizatu zenean arazok jarri ziren mahai gainean, eta gaur egun begi onez ikusten den aldaketa. Bukatzeko, bertako produktuen sarea indartu behar dela seinalatu zuten, bertako ekoizleak indartzeko eta CO2 isurpenak kontrolatzeko.

Plenarioran aipatu ez zituzten erronken artean daude, alde batetik, Legazpin ez dagoela jarduera fisikoak egiteko espazio egokiturik itzalpean, eta bestetik, lehen sektoreari dagokionez, idatzi zuten beharrezko adela lehen sektorean belaunaldi aldaketa sustatzea, hauek ingurumenaren zaintzat duten garrantziagatik. Horrekin batera aipatzen da basoen eta ibaien zaintza eta garbiketaren utzikeria.

#### **Erronken laburpena gaika:**

Energia:

- Burujabetza energetikoaren inguruan informazio gehiago ematea.

Mugikortasuna:

- Gazteen kirol ekintzetan autobusaren erabilera sustatu
- Kotxeen erabilera handia
- Bidegorri sarea handitu eta hobetu

Ekonomia zirkularra:



Jarraian, berdeguneen falta dagoela aipatu zuten. Honen ondorioz, Legazpi eta Urretxu elkartzen dituen bidegorriak ez du itzalik eta haurrentzako parke askoak ez dute itzal ez natural ez artifizialik. Gainera, beroa eramangarriagoa egiteko neurrien artean komentatu zuten onuragarria izango udal jabetzako espazioak aire girotuz atontzea eta lokalizatzea, herritarren eskura jartzeko.

Azkenik, proposatu zuten basoak eta mendiak berriz animaliaz hornitzea hauen mantenuaz modu ekonomiko eta naturalean esku hartzeko.

### Erronken laburpena gaika:

Mugikortasuna:


- Konexio gutxi Bizkaia eta Nafarroarekin
- Bergara-Zumarraga serbitzuak maiztasun txikia
- Hobetu behar da eskualde arteko konektibitatea

Hiri berroneratzea:

- Hiri-inguruetan berdeguneak falta dira
- Legazpi eta Urretxu tarteko bidegorriak ez du iztalik
- Haurrentzako parkeak ez dute itzal natural ez artifizialik
- Udal jabetzako espazioak aire girotuz atondu eta lokalizatu, herritarren eskura jartzeko

Lehen sektorea:

- Basoak eta mendiak berriz animaliaz hornitu, mantenuaz modu ekonomiko eta naturalean esku hartzeko.



## 5. lan-mahaia / Bozeramailea: Iñaki Elgarresta

Hasteko, talde honek proiektu honekiko zalantza adierazi zuen, eskualdean existitzen baitira dagoeneko erronka klimatikoari aurre egiteko eskualde mailako plan eta programa ezberdinak, eta duplizitatea egotearekin kezka igarri zuten.

Behin hori adierazita, aipatu zuten beharrezkoa dela lehen sektore babesteko planak egitea, basoen eta ibaien zaintza bermatzeko. Horrekin batera, aterpe klimatikoaren sare bat osatu beharko litzatekeela seinalatu zuten. Azkenik, nabarmendu zuten egun existitzen den bidegorri sarean herrien arteko konexioak falta direla eta horiek osatu beharko liratekeela.

### Erronken laburpena gaika:

Gobernantza:

- Zalantzan proiektu honen beharrezkotasuna, eskualdean jada existitzen dira erronka klimatikoari aurre egiteko eskualde mailako plan eta programa ezberdinak.

Lehen sektorea:


- Lehen sektorea babesteko planak garatu behar dira
- Baso eta ibaien kudeaketa bermatu

Hiri berroneratzea:

- Aterpe klimatikoaren sarea sortu

Mugikortasuna:

- Herrien bidegorri sarearen arteko lotura falta da
- Herrien arteko konexioa osatu bidegorrien bitartez.



Plenarioarekin bukatu aurretik, Jose Ignacio Asensio, Foru Diputatuak, azaldu zuen Aldunditik egoera honi aurre egiteko daukaten modua plangintzak bultzatu eta azkartzea dela. Bidegorriekin adibidez, udalen esku ez dauden interbentzioak bultzatuz. Hau da, jada martxan dauden planak konplimentatu nahi dituzte edota martxan jarri ezin izan diren proiektuak bultzatu. Azkenik, azpimarratu zuen prozesu parte hartzaile honetatik aterako diren proiektuak denon adostasunez jarriko direla martxan eta ondorioz badagoela marjina aurrera eramateko duplizidadeak erreproduzitzen ez dituzten proiektu eta proposamenak.

### **3. Itxiera**

Jose Igancio Asensio eta Xabi Muruaren eskutik.

### **4.. Asistentzia eta ordezkari-tza instituzionala**

Jardunaldian guztira 26 lagunek parte hartu zuten, Gipuzkoako eskualde-agentzietako eta udalerrietako ordezkarien artean, lurralde-ordezkari-tza bermatzeko moduan banatuta:

- Eskualde-agentzietako ordezkariak: 2 ordezkari.
- Eskualde-elkarteetako ordezkariak: 16 ordezkari.
- Erakunde publikoetako ordezkariak: 8 ordezkari.